

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

LETREN FAKULTATEA



FACULTAD DE LETRAS

Imozko oikonimiaz

EGILEA:

Ibai Iriarte Goñi

Euskal Ikasketen Gradua. 2016-2017 ikasturtea.

TUTOREA

Mikel Martinez Arteta

Hizkuntzalaritza eta Euskal ikasketen saila.

LABURPENA

“Imozko oikonimiaz” izena duen Gradu Amaierako Lan (GRAL) honek Imozko oikonimia eta bertatik eratorritako izengoitiak aztertzea du helburu, honako gaia Euskal Herriko beste alderdi batzuetan landu duten adituen lanak oinarri hartuz.

Lanari ekiteko Imozko telefono zerrendetan jasotako datuak baliatu ditugu eta hortik abiatuta Juan Aleman Imotz eta Basaburuako idazkari ohiarekin elkartu gara datuak xehekiago ezagutze aldera. Hark jarri dizkigu eskura dokumentu zaharrak eta egungo etxe izenen gaineko informazio ugari. Datuok apur bat landu ondoren, Eraso, Etxaleku, Goldaratz, Oskotz eta Urritzako lekukoekin elkartu gara datuak gehitu, kendu edota aldatzeko helburuz. Bigarren datu bilketa honen ondoren, datuak ordenatu eta adituen lanekin erkatu ditugu oikonimo bakoitzaren azalpen ahalik eta egokiena eskaintzeko. Lanaren ezaugarriek hautaketa bat egitera behartu gaituzte eta hautaketa horretan ezaugarri sorta anitzena erakusten zuten adibideak ekartzen saiatu gara.

Sarrera eta kokatzen laguntzeko informazioaz gain, lana bi zati nagusitan egituraturik dago. Lehen zatia hautatutako oikonimoen azterketari dagokio. Aurreko dokumentazioan jasoriko formak ekarri eta urteetan zehar izan duten bilakaera erakusten da lehendabizi. Ondoren, oikonimoa osatzen duten osagaien proposamena dator, garapenean izan dituen prozesu fonologikoak eta osagai bakoitzaren esanahi etimologikoaren proposamena eskaintzen dira, adituen lanez egindako gure irakurketa oinarri.

Bigarren zati nagusia izengoitien azterketari dagokio. Kopurua eta prozesuak askoz urriagoak zirenez, lan honetara izengoiti guztiak ekartzea hobetsi dugu. Prozesu bakoitzarekin, adibide bat aztertu da xeheki eta ondoren prozesu berbera jasan duten izengoiti guztiak aipatu dira, lana astun eta errepikakorregia suerta ez zedin.

Lanaren amaieran, ateratako ondorioak eta bibliografia aurkituko ditu irakurleak.

AURKIBIDEA

1. Sarrera	2
2. Imozko bailararen ezaugarriak	3
3. Metodologia	4
4. Datuen Corpusa	5
4.1 Laburdurak	5
4.2 Oikonimoen Corpusa	5
4.2.1 Txantiloia	5
4.2.2 Corpusa	6
4.3 Izengoitien Corpusa	23
4.3.1 Sarrera	23
4.3.2 Corpusa	24
5. Ondorioak	28
6. Bibliografia	29

1. Sarrera

Lan honen helburua Imozko oikonimia eta bertatik sorturiko izengoitiak aztertzea da. Lanaren ezaugarriek beharturik ezin izan ditugu oikonimo guztiak aztertu; bai ordea jasotako izengoiti guztiak, kopuru askoz murriztagoa izaki. Oikonimiaren azterketak euskal ikasketen graduan ikasitako zenbait jakintza alor uztartzen ditu, hain beharrezkoak baitira fonetika eta gramatika historikoaren gaineko ezagutzak nola historia eta antropologiarenak. Aukera paregabea eskaintzen du, hortaz, azken urteotan ikasitakoa praktikan jartzeko.

Oikonimiak garrantzia handia izan du Euskal Herriko kulturaren. Duela urte batzuk baserriaren inguruan antolatzen zuten bizitza eta bizimodua familiak eta haren inguruan aritzen ziren aurrera ateratzeko behar zituzten lanak egiten. Gaur egun ordea, etxetik kanpo egiten da lan, esplotazio handiek baserriaren azken lekua hartu dute eta baserriak gure gizartean zuen itzala lausotu egin dela dirudi, oikonimiarenarekin batera. Oikonimoen erabilera eta ezagutza geroz eta urriagoa da herritarrengan eta belaunaldi gazteagoei so eginez gero, nabarmenagoa da oikonimiarekiko interesik eza. Baliteke, hortaz, hemendik urte batzuetara antzinako kontu bihurtzea.

Guri dagokigun alorrari dagokionez, ezin alde batera utzi toponimiaren eta oikonimiaren etimologiak eskaintzea zaletu asko erakartzen dituen kirola dela. Adituendako zaila gertatzen den hori erraz azaltzen duten hamaika artikulua eta liburu aurki daitezke ahalegin handiegirik egin gabe eta horixe izan da lan honen beste erronketariko bat: bibliografia egokia aukeratzea gure lanari oinarri ahalik eta sendoena emateko.

Lehenik, bailararen zenbait ezaugarri aurkeztuko ditugu, ondoren metodologiaren inguruko zenbait ohar egiteko. Corpusaren azterketari helduko diogu gero, oikonimoen alderdi semantikoa (osagai historiko-antropologikoak aintzat hartuz) eta alderdi formala (prozesu fonetiko eta morfologikoak zein ezaugarri dialektalak deskribatuz) iruzkinduz. Horren ostean, oikonimoetatik eratorritako izengoitiak aztertuko ditugu eta amaitzeko ateratako zenbait ondorio eskainiko ditugu.

Honako lana egiteko ezin utzizkoak izan zaizkigu Juan Alemanek urte luzez jasotako dokumentu eta oharra eta Imotz bailaran zehar euren laguntza eta jakinduria eskaintzeko prest aurkitu ditugun lekukoak. Era berean, biziki lagungarri izan dira Mikel Martinez Aretak iturri bibliografikoen hautaketarako eskainitako laguntza eta lanaren gainean egindako oharra.

Hausnarketarako gonbidapentzat har bitez hemen aipatuak eta inondik inora eztabaidatu ezinezko egiazat.

2. Imozko bailararen ezaugarriak¹

Iruñerriko merindadeko ibarra da Imotz eta egun 8 udalerrik osatzen dute: Eraso, Etxaleku, Goldaratz, Latasa, Muskitz, Oskotz, Urritza eta Zarrantz. Imotz bailara 1193. urtean ageri da lehen aldiz agirietan. Urte horretan, Antso Jakitunak forua eman zien imoztarrei eta baita ordaindu beharreko zerga ezarri ere. Orduz geroztik forma anitzetan agertu izan da dokumentazioan: *Imoz*, *Ymotz* eta *Ymoz*. XI. mende inguruan, gaur egun desagerturik dauden beste 4 herri bazirela aipatzen du Jimeno Juriok: *LoyUrr.*, *Iriberry*, *Çarate* eta *Ausau*. Horiez gain, 1268ko “Libro de Rediezmo” delakoan ageri ez den *Amen* izeneko herri bat ere ba omen zen. XIX. mendearen erdialdean udala Erason zegoen eta baita espetxea ere. Gerora, udala Latasara eraman zuten eta azkenik Etxalekura, gaur egungo tokira.

Bailarako jarduera ekonomikoak nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza izan dira nagusiki, nahiz eta industria apur bat ere egon izan den (meatzaritza, karea, lixiba, papera...), baina haren eragina oso urria izan da eta egun ez da horien arrastorik geratzen. Egunotan, bertako biztanle gehienek Irurtzun eta Iruñean egiten dute lan.

Imozko herriak oso txikiak dira, 100 biztanlera ere ez dira iristen. Bailara osoko demografiak beheranzko joera darakuskigu 1857tik 2017ra bitarteko datuetan (orduko 1.290 biztanletik gaur egungo² 433etara).

Imozko herriek ez dute historikoki harreman handirik izan beren artean, nahiz eta errepide sareen eta garraioaren hedapenak hori asko aldatu duten. Historikoki, orografiak hala bultzaturik, Goldaratzek Larraungo zenbait herrirekin izan du harremana eta Muskitzek Txulapain eta Gulibarrekin. Harreman sare horiek lotura zuzena dute herri horietan egiten den euskararekin, Apalauzak (2008: 22) dioenez.

Historian zehar, zenbait ikertzailek (Irizar, Sanchez Carrión...) aztertu dute Imozko euskara eta hark gizartean zuen egoera. Bertako euskalkia goi-nafarreratzat hartu zuen Bonapartek 1869an egindako sailkapenean. Ibarrek (1995: 693) mendebaldeko goi-nafarreraren barruan sailkatu zuen. Zuazok (2014: 87, 95), aldiz, Muskitz herria euskara nafarraren barruan ikusten du eta gainerakoak tarteko hizkeratzat dauzka erdialdeko sortaldeko azpieuskalkiaren eta mendebaldeko euskara nafarraren artean. Oro har, bat datoz ikertzaileak Eraso, Latasa eta Urritza herri erdalduntzat hartzerakoan. Horren atzean, Plazaola trena eta Iruñea-Donostia errepidearen eragina egon

¹ Hemen aipatuek Jurio (1997: 125,126) eta Apalauza (2008: 17-29) dituzte oinarri.

² <http://www.ine.es/FichasWeb/RegMunicipios.do?fichas=49&inputBusqueda=&comunidades=8997&botonFichas=Ir+a+la+tabla+de+resultados> (2017-05-06)

litezkeela aipatzen dute. Beste balizko arrazoi bat aipatzen dute ere, behintzat Latasari dagokionez, eta hori kanpoko jende ugariaren etorrera da.

Aztertutako oikonimoetan, emakumezkoek duten presentziari ere erreparatu diogu. Ikusi ahal izan dugunez, jatorrian emakumezkoen izena duten oikonimoak urriak dira Imotz bailaran. Hala gertatu ohi da beste zenbait lekutan, adibidez, Erroibar eta Esteribarren Ibarak (2003: 156-158) jasotakoaren arabera. Orokorrean, emakumeen izenak gutxiagotan ageri omen dira etxearen kanpora begirako gaietan, esaterako, gaur egungo telefono zerrendetan. Berdin gertatzen da Britainian Erdi Aroan egindako ikerketa batean, herena izatera besterik heltzen ez direlarik. Oikonimoetan lanbideak islatuak agertzen direnean ere, gizonezkoenak izan ohi direla dio Ibarak (ibid.). Imotzen ere gauza bera gertatzen dela esan genezake, aurkituriko kopurua 8koa besterik ez baita (*Domikenea, Felisaenea, Maiatzenea (< Marizena), Marijuanea, Marimigelenea, Maritonea, Matxika* eta *Matxikenea*). Erabilitako telefono zerrendan, guztira 153 oikonimo ageri dira eta, hortaz, emakumeen agerpena %5,2 besterik ez da. Telefono zenbakiaren jabe edo titularrei so eginez gero ordea, emakumeen izena 53 aldiz aurkitu dugu (%34,6). Esan liteke beraz, ohiturak aldatuz doazela honi dagokionez ere.

3. Metodologia

Lan hau osatzeko, lau urrats nagusi jarraitu ditugu.

Hasteko, Imozko bailarak bertako etxeetan banatzen duen telefono zerrenda eskuratu genuen. Zerrenda horretan, telefono linearen titularraren izen-abizenen ondoan, etxe izena edo oikonimoa ageri da eta haiekin batera telefonoa.

Behin zerrenda eskuratuta, zerrenda hori osatu zuen Juan Alemanekin elkartu ginen haren gaineko zenbait galdera egiteko. Hark, zenbait zalantza argitzeaz gain, urte luzez jasotako dokumentazioa utzi zigun (apeoak, matrikulak, oharrak...).

Hirugarren urratsa, jasotako dokumentazioa oinarri harturik, herrietara abiatzea izan zen, bertako berri zuzenean jasotzeko eta herri bakoitzetik gutxienez lekuko bat lortzen saiatu ginen. Muskitz eta Zarrantzen ezinezko izan zitzaigun halakorik lortzea topatu genituen herritar guztiak duela gutxi bertara joandakoak baitziren. Dena dela, Alemanek bailara guztiaz esandakoez gain, Oskozko lekukoek esanikoak hartu genituen kontuan eta bat zetozenak, ontzat eman genituen.

Amaitzeko, datu guztiak aztertu genituen eta behin-behineko emaitza Alemanekin eta beste lekuko batzuekin erkatu genuen zuzendu beharrekoak zuzentzen saiatzeko.

Lanaren ezaugarriak direla eta, ezinezkoa izan zaigu bailara osoko oikonimoak iruzkintzea, eta beraz, hautaketa bat egin behar izan dugu. Hautaketa horrek bi irizpide nagusi izan ditu: 1727ko apeoan edota lehenagoko dokumentazioan agertzea eta ahalik eta gertakarien aniztasun handiena islatzen saiatzea. Izengoitien kasuan, kopuru murriztagoa izanik, jasotako guztiak aurkeztea erabaki dugu.

4. Datuen corpusa

4.1. Laburdurak

Honakoak dira erabili ditugun laburdurak:

AV: Apellidos vascos (ikus Mitxelena 1989[1953])	Lat.: Latasa.
J.E.: Jatorrizko etxea.	Gol.: Goldaratz.
H.Ah.: Herri ahoskera.	Mus.: Muskitz.
Era.: Eraso.	Osk.: Oskotz.
Etx.: Etxaleku.	Urr.: Urritza.
	Zar.: Zarrantz

4.2. Oikonimoen corpusa

4.2.1. Txantiloia

Oikonimoak iruzkintzeko honako ereduak erabili dugu:

AÑAITA₁ (Lat.)₂

Aurreko agerpenak eta herri ahoskera (AAHA)₃: 1727ko apeoan (...). H.Ah.: *Añita* edo *Añaita*.

Iruzkina₄: *Ainar* + *-di* + *-eta*. ‘Ainar ugariko lekua’. Baliteke (...)

1. Imozko telefono zerrendan ageri den forma, ofiziala edo.
2. Oikonimoaren herria(k).
3. Dokumentazioan agertutako formak. Oinarritzat 1727ko apeoa hartu dugu. Aurreko edo ondorengo dokumentazioan agertutako formek ez badute 1727koarekiko aldaketarik erakusten edo horiek esanguratsuak iruditu ez bazaizkigu, ez da beste agerpenik aipatu.

Aurreko agerpenen ondoren, lekukoengandik jasotako ahoskera edota “forma herrikoa” dator adierazita. Forma hori 1. puntuan adierazitakoarekin bat datorrenean, ez da aipamenik egin.

4. Iruzkinean, lehenik eta behin oikonimoa osatzen duten elementuak aurkezten dira letra etzanetan eta + sinboloaz banaturik. Ondoren, kakotx sinpleen artean proposaturiko esanahia eskaintzen da eta azkenik esanahi horren aldeko hautua azaltzen duen elementukako azterketa dator.

4.2.2. Corpusa

AÑAITA (Lat.)

Aurreko agerpenak eta herri ahoskera (AAHA): 1727ko apeoan *Añadieta* izena ageri da. H.Ah.: *Añita* edo *Añaita*.

Iruzkina: *Ainar* + *-di* + *-eta*. ‘Ainar ugariko lekua’. Baliteke antzinagoko forma **Añardieta* izatea. Gaur egun etxearen inguruan larreak eta alorrak nagusi badira ere, ainar ugari aurki daitezke inguruan. Ikus daitekeenez, bi atzizki daude **ainar* erroaren atzetik: *-di* eta *-eta*.

Belaskok (2000: 2009) *-di* atzizkiari “sufijo abundancial” adiera ezartzen dio. Mitxelenak (AV: 78, 79), ordea, honakoa dio atzizki honi buruz³: “suf. derivativo que denota muchedumbre”.

Bestalde, *-eta* atzizkiari dagokionez, Belaskok (2000: 320) adiera lokatiboa duela aipatzen du. Mitxelenak (AV: 87) “[...] indica pluralidad” dio Azkueren aipu bat ekarriz. Dena dela, Mitxelenak berak (1971: 241-246) *-eta* eta *-aga* atzizkiak aztertzen ditu elkarrekin, biek ala biek adiera lokatiboa dutela defendatuz. Batetik, (1971: 242) “se comportan más bien como sufijos de declinación que como sufijos de derivación” esaten du. Aurretik aipaturiko *-di* atzizkiarekin batera agertzean, kasu orotan hurrenkera bera agertzen dutela dio: “[...] estos últimos [-eta eta -aga] siguen, nunca preceden, a los primeros. Hay así *Urreiz-ti / Urreiz-ti-eta* [...]”. Bestetik (1971: 244), txikigarriak eransterakoan ere, atzizkion aurretik txertatu ohi direla aipatzen du (*Iturrichueta*). Balio lokatiboaren alde egiteko arrazoiak badira, antza, izenaren modifikatzaile guztien atzetik agertzeak behintzat, horren alde egitea aski errazten baitu.

³ ‘-di’ sarrerak ‘-doi, -dui’ sarrerara bideratzen gaitu eta bigarren horretan aipaturikoak dira hemen jaso ditugunak.

APEZENEA (Etx.)

AAHA: 1727ko apeoan *Apezena* ageri da.

Iruzkina: *Apez* + *-(e)nea*. ‘Apezaren etxea’. Lehen osagaiari dagokionez, euskal tradizioan hiru modu daude lekukoturik lanbide berberari erreferentzia egiteko OEHren arabera (s. v. *apaiz* & *abade* 2): *Abade* (V), *Apaiz* (G, AN) eta *apez* (G, AN, L, B, BN, Ae, Sal, S, R). Mitxelenak aipatzen duenez (1961: 229; 1974: 197), oso litekeena da *abbas* hitz latindarretik hartutako mailegua izatea, hitz amaiera azaltzeko zailtasunak badaude ere. Ikus daitekeenez, Imotz bailarako lekukotasuna OEHn jasotako eremuen banaketarekin bat dator.

Atzizkiaren inguruan, *-(r)ena* → *-(e)nea* bilakaera 1727 eta gaur egun artean gertatu zela ikus dezakegu. Zenbait adibidetan bilakabidearen lehen urratsa gauzaturik da 1727rako (cf. AROTZENEAA) eta beste batzuetan prozesua buruturik (cf. LUXENEAA). Azalpen bi eskaintzen dituzte adituek. Batetik Mitxelenak (AV: 83, 84) dio oikonimoen *-enea* lekuzko kasuekin maiz erabiltzetik sortua izateko aukera dagoela. Jatorrizko *-(r)ena* duten oikonimoak morfologikoki erregularrak izanik (*Hernando-ren-a*), ematen du *-(e)nea* dutenen kasuan kontsonantez amaitutako izen singularrak lekuzko atzizkiekin deklinatzean txertatu ohi den *-e-* organiko bihurtu dela (*Errando-ne-an*) (Mitxelena 1969: 22). Hortaz aukera asko dago dago *-e-* organikoki berranalizatua izateko. Honakoa izan liteke oikonimoak jasandako bilakaera: **Apezaren-* > **Apezaen-* > *Apez-*, eta horri artikulua eta loturazko *-e-* gehiturik, *Apezenea*.

AROTZENEAA (Lat., Osk., Urr.)

AAHA: 1646an *Arozarena* ageri da Oskotzen, 1727ko apeoan *Arozena* Latasan eta Oskotzen, Urritzan ez dago jasorik. H.Ah.: *Aotzenea*.

Iruzkina: *Arotz* + *(e)nea*. ‘Arotzaren etxea’, ‘zurginaren etxea’. Mitxelenak (AV: 55) arotz lanbidearekin lotzen du honako oikonimoa. Hizkuntza ugaritan paraleloak dituela aipatzen du, hala nola *Lefèvre* edo *Smith* (frantsesez eta ingelesez). OEHn (s. v. *arotz*) bi adiera ageri dira: “**arotz** ♦ 1. Carpintero. ♦ 2. Herrero”. Lehenaren adiera “sólo en los autores meridionales” dagoela aipatzen du eta bigarrena “en los septentrionales (aunque tbn. es usada por algunos autores meridionales del s. XX)”. Dena dela, Oskotzen egindako galdeketetan, *Casa (de)l herrero* izenez ere ezaguna dela esan digute. Beraz, badirudi OEHn aipaturiko bigarren adierarako eremuarekin bat datorrela, baina haren hegoaldeko erabilera denboran atzerago kokatuko luke. Era berean, baliteke orduko jabeen eta ondorengoaren artean ogibide aldaketa gertatu izana, beraz ezin baieztapen borobilik egin. Ahozko erabileran, oikonimoak sinkopa jasan du lehen osagaiaren bokalarteko dardarkaria galduz.

Apalauzak dio(2008: 82) Imotzen ohikoa dela sinkopa mota hori: “Beste euskal hizkera askotan bezala, bokal arteko herskari ahostunek (*b, d, g*) eta ttak (*r*) kontsonanteak galtzeko joera dute”.

Atzizkiaz ikus APEZENEAA.

ARTONEA (Mus.)

AAHA: 1727ko apeoan *Arterorena* bezala ageri da.

Iruzkina: *Artero* + *-(e)nea*. ‘Tranpak egiten dituenaren etxea’, ‘arteroaren etxea’. Dirudienez, artero lanbideak tranpak egitearekin lotura zuela Andres Iñigok (2000: 141) aipatzen duenez. Iñigok berak artero lanbidea lehen sektorekotzat jotzen du beste lan batean (2008a: 359) baina horretan ez du gaztelaniazko ordainik ematen. OEHN (s.v. *arte*) honakoa ageri da: “2 **arte**. ♦ 1. ‘Trampa, cepo, lazo; artimaña, truco, artificio’”. Haren erabilera, besteren artean, Larraunen, Bortzirietan eta Burundan dago dokumentaturik. Bestetik, Apezetxeak eta Salaberrik (2009: 50) *Arterenea* sarreran *artero* dakusate oinarrian eta ‘arteak egiten edo paratzen dituen pertsona’ dela gaineratzen dute.

Lehen osagaiaren atzizkiaz honakoa dio Iñigok (2000: 141):

[Oikonimoek] A veces señalan el nombre del oficio, pero como en general se atribuían a quienes los ejercían, la mayoría de las veces van acompañados de sufijos agentes: *-ari, -gile* o su variante *-gin, -le* o su variante *-tzaille, -zain*, y en algún caso del posesivo *-dun*. Otras veces les acompañan terminaciones tomadas como préstamos del castellano: *-au, -(l)ero, -or(e)*.

Aurreko bilakabideez gain, *-er-* ere galdu du. Baliteke oikonimoek jasaten duten higadura nabarmenagoaren ondorioz lehendabizi bokalarteko dardarkaria galdu eta ondoren bokalak soildu izana: *Artero-* > *Arteo-* > *Arto-*. Dena dela, badirudi honako oikonimoa izen berezi bezala tratatua izan dela, **Arteroarena* bezalako zerbait eduki beharrean, *Arterorena* ageri baita lehen lekukotasunean. *Arotzenearekin* antzeko zerbait gertatzen da Latasan, baina ez Oskotzen. *Apezeneak* ere izen bereziaren tratamendua jaso duela ematen du, beraz pentsa genezake alderdi honetan lanbideak zenbaitetan izen berezi bezala ulertu izan direla. Dena dela, baieztape hori egin ahal izateko, dokumentazioan atzera egin beharko litzateke, aspaldikoagoko agerpenek erakusten duten forma zehaztu ahal izateko.

Oikonimoaren atzizkiaz ikus APEZENEAA.

AZPIKOETXEA (Lat., Urr.)

AAHA: 1727ko apeoan *Azpicoechea* bezala ageri da. H.Ah.: *Azpikotxea*.

Iruzkina: *Azpi* + *ko* + *etxe* + *a*. ‘Azpian dagoen etxea’. Azpiren lekukotasunez, ikus BEREKOETXEA. Leku genitiboaz ikus DINDAKOA.

Ahozko erabileran, bigarren elementuko lehen fonema (/e/) galdu egin da elkarketaren ondorioz, gaur egungo *Azpikotxea* emanez. Salaberrik (2006: 877, 878) aipatzen duenez, *etxe* oso elementu erabilia da oikonimian eta batzuetan nahiko desitxuraturik ageri da (*Karakotxea* (Urr.)); beste zenbaitetan nagusiaren izenari, deiturari edo lanbideari loturik (*Argiñen itxia* (Etx.), *Pedron itxe* (Gol.)); anitzetan kokalekua adierazten duen izenlagun batekin (*Azpikotxea* (Urr.)); bestelakoak ere elkartzen dira *etxerekin* (*Auzitxea* (< *auzo* + *etxea*) (Urr.)); etxearen ezaugarriei erreferentzia egiten dieten elementuekin elkarturik ageri da ere (*Itxaundie* (Etx.)). Ezker eta eskuin ager daiteke *etxe* (*Etxabere* (Arizkun, 1726) / *Berekotxea* (Era.)).

Salaberrik (2006: 874) aipatzen duenez, artikulua amaitzen dira oikonimo ugari:

Zenbaitetan etxea dagoen tokia, etxetik hurbil dagoen zerbait edo orientazioa hartzen da erreferentziatuz, eta ez da *-ko* leku genitiboa agertzen, artikulua edo leku kasuetan azaltzen den *-e-* loturazkoa eta artikulua (leku kasuetan ez da erabat segurua artikulua den, baina badirudi hala dela) baizik.

BARABARNEA (Osk.)

AAHA: 1727ko apeoan *Barabarrena* bezala ageri da.

Iruzkina: *Bara* + *barne* + *a*. Etimologia iluna du. Lehendabiziko osagaiari dagokionez, Patxi Salaberrik (2014 : 338) honakoa dio *Barañain* toponimoari buruz: “Creo, sin embargo, que la opción más económica es la que se basa en **Varanius*, probable variante del documentado *Varanus*”. Mitxelenak (AV: 66) **bar(r)*- erroa *barren* sarreran aipatzen du. Hori oinarri hartuta, pentsa genezake agian lehen elementua erreduplikazio baten ondorio izan daitekeela (**bar-barren* > *bar-a-barren*). OEHN aurkitutako definizioek (s. v. *bara*) ez digute bidea askoz gehiago argitzen eta hortaz, etimologia egoki bat aurkeztea zinez zaila gertatzen zaigu.

Lehen osagaiak eragindako zailtasunak alde batera utziz, honako oikonimoa oso interesgarria da *barren* > *barne* bilakaeraren *post quem* data ematen digulako Imotz bailaran. OEHN (s.v. *barren*) aipatzen denaren arabera, XVIII. mendearen amaieran gertatu zen lehenaren gainbehera bigarrenaren alde. Michelenaren (AV: 66) beraren hitzetan, *barne* **barren-e* batetik sortua litzateke. Dena dela, antza denez, bigarren osagaia ez dugu ohiko ‘zerbaiten barruan’ adieraz ulertu behar,

‘azpiko aldean’ baizik (ibid.) “extremo inferior (e “interior”)”. Maiorak (2014: 57) esaterako, *Dindabarren* ‘la calle de abajo’ ematen du eta Salaberrik (2006: 882) *Iribarren(a)* ‘el barrio bajo’ dakar. OEHN (s. v. *barren* ♦ 2) ez da adiera hori Nafarroan lekukotzen, baina bai Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Beherean. Dena dela, etxearen kokalekuarekin bateragarriago den beste adiera bat dakar OEHN ♦ 3. (V-ger-gip). Extremo, final”. Kokalekuari erreparatuta, adiera baten ala bestearen alde egiteko zailtasunak ditugu, herriaren saihetsean eta beheko aldean, baitago.

Leku genitiboaz ikus DINDAKOA. Artikuluaz ikus AZPIKOETXEA.

BELTRANEA (Etx.)

AAHA: 1727ko apeoan *Beltranena* ageri da. ‘Beltranen etxea’

Iruzkina: *Beltran* + (e)nea. Mitxelenak eta Irigaraik (1955: 113) *Bernat* edo *Bernardo* izen bereziarekin lotzen dute *Beltran*: “También con disimilación *Betran*, *Beltrán* dim. *Bettan*, *Pettan*”.

Atzizkiaz, ikus APEZENEA. Atzizkiaren haplologiaz ikus JUANEA.

BEREKOETXEA (Era.)

AAHA: 1727ko apeoan *Berecochea* ageri da. H.Ah.: *Berekotxea*.

Iruzkina: *Behere* + *ko* + *etxe* + *a*. ‘Beheko etxea’. *Behereren* erabilera Lapurdi eta Nafarroa Beherean kokatzen du Azkuek (OEHN, s.v. *behere*). OEHN iparraldeko tradizioko hiztatzat aurkezten dute⁴. *Behere* soilik Erasoko oikonimo honetan ageri zaigu. Gainerakoan, *azpi* dute Etxalekun, Latasan eta Urritzan. Latasan *beiti* ageri da etxe berriago batean. Dena dela, ‘goiko aldeko’ adierazterakoan, banaketa bestelakoa da: *garai-* dugu Latasa, Oskotz, Urritza eta Zarrantzen; *goi-* Eraso eta Goldaratzen; eta *goiti-* Etxalekun. Azken honetaz ikus GARAIKOTXEA.

Leku genitiboaz ikus DINDAKOA. *Azpikoetxea*-n bezala, bigarren osagaiko lehen bokala erortzen da.

⁴ Gauza bera gertatzen da *oren* hitzarekin, eta Imotzen erabili egiten da ‘ordubata’ esateko Apalauzaren Arabera (2008: 138): “‘ordubata’ > Goldaratzen *ordueta* vs. Imotzen *onbata*”. Horrez gain, aipatu ez ditugun *Gillenea* (Gol.) oikonimoa, *Napoleonborda* (Urr.) toponimoa eta beste batzuk ere badira

DINDAKOA (Gol., Osk.)

AAHA: 1727ko apeoan *Dindacoa* ageri da, 1818ko matrikulan *Dinda*. H.Ah.: *Dindea* eta *Indea*.

Iruzkina: *Dinda* (+ *ko*) + *a*. ‘Kaleko etxea’, ‘kalean dagoen etxea’. Fernando Maiorak (2014: 57), *Dindabarren* ‘la calle de abajo’ dakar. Patxi Salaberrik (2006: 884) odonimotzat ditu *Dinda*, *Inda*, etab.: “*Bide, dinda - inda, galtzada, gamio, kamioa* (< *camino*), *kaminoa* odonimoak ere oikonimo frankoren oinarrian kausitzen ditugu (ikus Etxegarai 1926: 97-98)”. Ondoren, zenbait adibide eskaintzen ditu. Hona horietariko batzuk: *Indea* (Aniz), *Inda* (Berroeta, Lekaroz) *Indartea* (Arizkun [...]), *Indaburua* (Zugarramurdi). OEHN honakoa ageri da (s. v. *inta*): “**inta** [...], **inda** [...]. ♦ 1. Senda, camino. ♦ 2. [...], **inda** [...]. Pantano, lugar pantanoso; lodazal. “Pantano, lodazal” A.”⁵

Gure kasuan, egokiagotzat dugu lehendabiziko adiera, bi etxeak herriaren erdigunean baitaude. Izan ere, Oskotzen bada *Dindakoa* parean Matxinekoen etxe bat eta hark *Matxineko Dindakoa* izena du eta pentsa liteke alderdi edo eremuari dagokiola jatorriz *dinda* izena etxeari baino.

Leku genitiboaren atzizkiaz, Salaberrik (2006: 874, 875) honakoa aipatzen du:

Euskal etxe izenak sortzeko ibiltzen diren atzizkien artean aski —ez erabat— mendebaldekotzat (pertsone izen bati edo lanbide izen bati itsatsirik azaltzen denean, ez bestela) jo daitekeen *-ko* leku genitiboaren hondarkiare bidezko modua dugu. Itxuraz singularreko forma bada ere, ez da, oinarriari itsasteko orduan, tarteko bokal epentetikorik sartzen, hau da, leku izen berezietan aurkitu ohi dugun jokaera bera aurkitzen dugu hemen (*Oskotz / Oskozkoa, Zarautz / Zarauzkoa*). Gainera, zenbaitetan behintzat, *-go* bihurtzen da ozen ondoan, *Irurtzun* + *-ko* > *Irurtzungo*-n bezala. Hortaz, mugagabeko hondarkizat har dezakegu.

Aurrekoaren lekukotasunak Nafarroan ere ageri direla aipatzen du (*Gabrielkoa* (Zubieta)...). Ondoren, honakoa gaineratzen du (2006: 875): “Beste askotan irudi du *-ko* atzizkia eskuarki izan ohi duen adierarekin, bere jatorrizko erranahiarekin adosago dagoela, hots, lekua adierazten du”.

Hitz amaierako *-eari* dagokionez, analogiaz sortutakoa izateko aukera dago: “Zenbaitetan *-ea* bukaera analogiaz agertzen da, berez horrelakorik agertu behar ez lukeen oikonimoetan: *Alabatea* (<*Alabatoa*, Zubieta), *Eskiñea* (Ituren)” (Salaberri 2006: 874). Imotzi dagokionez, baliteke honakoa (Osk.) horren adibide izatea.

⁵ A: Azkue.

DOMIKENEA (Etx.)

AAHA: 1727ko apeoan *Domecarena* ageri da.

Iruzkina: *Domeka* + *(e)nea*. ‘Domekaren etxea’. *Domeka* izena aspaldidanikoa omen da Euskal Herri osoan, ez soilik mendebaldean, euskal hiztun gehienek pentsa lezaketen bezala. Mitxelenak eta Irigaraik honakoa aipatzen dute:

Domiku, Domeka Domingo, Domenga: [...] según L. de Eleizalde, *RIEV* 14, 560, *Domeca* (incluido por Azkue en su Diccionario como vizc. arcaico) es el nombre de una niña bautizada en la parroquia de Santiago (Bilbao) en 1557; cf. *Domaquenía* casa de Egozcue, Nav. En Guip. hay fem. *Domecoiza, Domicuza* (V. Lersundi). La alternancia i/e es la misma que se observa en las formas romances correspondientes [...] y en los diminutivos *Chomin* [...], fem. *Chomen* [...]. (1955 : 115)

Pentsa liteke lehendabizi genitiboaren atzizkiaren aldaketa gertatu izana (ikus APEZENEAA), ondoren lehen osagaiaren eta bigarrenaren elkarketak eragindako *-ae-* > *-e-* monoptongazioa, eta azkenik lehen osagaiaren erdiko bokalaren goratzea:

Domeka-rena > **Domeka-ena* → **Domeka-ene-a* > **Domekenea* > *Domikenea*.

Azken tokian kokatu dugun *e* > *i* ixtea azaltzeko bi aukera daudela uste dugu. Bata, atzizkiarekiko disimilazioa (*Domekenea* > *Domikenea*), eta bestea gizonezkoen *Domingo* izenarekiko analogiaz (etxeko nagusia gizonezkoa izatera pasa zelako edo) *Domek* → *Domik* gertatu izana.

Atzizkiaz ikus APEZENEAA.

ELIZAGA (Osk.)

AAHA: 1727ko apeoan *Elissaga* ageri da.

Iruzkina: *Eliz* + *-aga*. ‘Elizaren tokia’, ‘Elizaren alderdia’. Lehen osagaiaren esanahia gardena da eta haren forma bat dator OEHN (s. v. *eliza*) aipatzen den banaketarekin, forma orokorra hori baita.

Atzizkiari dagokionez, Mitxelenak “sufijo muerto que denota lugar” aipatzen du Azkueren aipu bat ekarriz (AV: 36). Patxi Salaberrik (2006: 875) oso oikonimo gutxitan ageri den atzizkitzat du eta eskaintzen dituen adibide urrietarik bat Oskozko hau da. Mikel Belaskok (2000: 340), toponimiaz ari bada ere, atzizki lokatibotzat dauka. Horren alde dago etxearen kokapena, etxea elizaren parean baitago; eliza *Apezenea* eta *Elizagaren* artean dago nolabaiteko karratu edo plaza bat eginez eta azkenaren alboan *Eskolazarra* dago. Laurak herriaren goiko aldean daude.

ERDABIDEA (Osk.)

AAHA: 1727ko apeoan *Erdabidea* ageri da.

Iruzkina: *Erda* + *bide* + *a*. Etimologia iluna. Lehen osagaiari dagokionez, Irigoyenek (1990: 141) aipatzen du *erdi* hitza hitz elkartuen lehen osagaitzat ageri denean *ert-* eman ohi duela usuen, nahiz beti horrela izan ez. *Erdi* hitza elkarketaren ezker elementu bezala ageri denean, zenbait arazo sortzen dira haren bilakaera azaltzeko. Kasu honetarako bi bide aurkitu ditugu.

- Hasierako elementua *erdi* izatea: *Erdara* hitzaren lehen osagaia *erdirekin* lotuz, Mitxelena (1977: 15) eta zenbait autorek ‘erdizka hitz egitea’ interpretatu dute. Mitxelena (AV: 74) *bide* sarreraren barnean oikonimo honen aldaera izan daitekeen *Erdaide* aipatzen du agian biderekin loturik egon litekeelakoan baina ez du frogatutzat ematen. Dena dela, aipatu beharra dago kasu honek arazo bat sortzen duela arauetik. Arau orokorreari jarraituz (Mitxelena AV: 25, 30), ****Erpide** espero genezake⁶. Batetik, *-i* amaieradun bisilaboek bokala galdu ohi dute elkartzerakoan (baina kasu honetan *-i* > *-a* gertatu da). Bestetik, amaierako posizioan geratzen den *h* (*/t/*) galdu egiten da bigarren elementuaren hitz hasierako *h* ahostunen aurrean, baina bigarren *h* hori ahoskabetuz.

- Hasierako elementua *erdu* izatea: Badira zenbait adibide non hitz amaierako *-u* > *-a* gertatzen den (*katu* > *katakume*). OEHk (s. v. *erdu*) “3 **erdu**. "(V), reconcentrarse"" dakar. Hortik *erdutura* bideratzen gaitu eta han ikus dezakegu Oihenartek ere erabili zuela ‘abiatu’ bezala ulerturik. Baliteke, hortaz, gordetako arkaismo baten aitzinean egotea.

Etxearen kokapenak bi adierak azaltzeko aukera ematen digu, etxearen parean zenbait bide elkartzen baitira.

Bigarren elementuari dagokionez, ohikoa da oikonimoetan Salaberriren (2006: 884) arabera (ikus DINDAKOA).

Artikuluaz ikus AZPIKOETXEA.

ERNATONEA (Etx.)

AAHA: 1727ko apeoan *Ernauttena* ageri da.

Iruzkina: *Ernaut* + *on* + (*e*)*nea*. ‘Ernautonen etxea’. Jatorri germaniarreko *Arnalt* izenak *-alt-* > *-aut-* tratamendu fonetiko gaskoia erakusten du oikonimo honen oinarrian dagoen izenak. Horrez gain, Euskal Herriko aldaeran *a-a* > *e-a* disimilazioa ageri da. Patxi Salaberrik (2009: 169) etxe

⁶ *Erdi* + *bide* > *ert* – *bide* > *er* – *pide*.

honen jatorrizko jabea izan litekeena aipatzen du bere lanean: “[...] Etxalekun *Ernauton* oikonimoa ageri da (*Ernauton dechalecu*, 1587, HA.p.⁷, 5)”. Baliteke 1727ko apeoa egin zuenak oikonimoa idazterakoan aldatu izana, gaur egungo oikonimoa errazago azaltzen baita jatorrian **Ernautonena* oikonimoa badugu. Sinkopagatik hitz barneko /u/ galduko luke. Salaberrik eta Iñigok (1994: 1417) *Arnau(t)* eta *Ernaut(on)* izenez ari direlarik, “aski arruntak” direla diote XVI. mendeko Nafarroa Garaian eta “batzuetan Iparraldetik edo Frantzia aldetik joandako norbaiten izena” izan daitekeen arren, askotan deitura nafarrak dituzten lagunen izena ere badela aipatzen dute.

Lehen osagaiaren *-on* (< *-one*) atzizkia, gaztelaniaz normalean handigarriztat erabiltzen bada ere, gaitzesgarri nahiz txikigarri ere izan daitekeela ohartarazten du Salaberrik (2009: 168).

Atzizkiaz ikus APEZENEAA.

ERRANDONEA (Mus.)

AAHA: 1727ko apeoan *Hernandorena* ageri da.

Iruzkina: *Hernando* + (*e*)*nea*. ‘Hernandoren etxea’. Lehen elementuari dagokionez, Salaberrik (2009: 268) *Fernando* izenaren euskal aldaeratzat aurkezten du *Errando*. Mitxelenak (AV: 99) *Hernando* eta *Herrando* sarrera buru berean ematen ditu. Ikus daitekeenez, 1727an oraindik ez da gertatu *-rn-* > *-rr-* aldaketa, beste leku askotan lehenago ere lekukoturik badago ere (Bilbon 1440. urtean *Cherran de Gamboa* ageri da (ibid.)). Era berean, Bizkaiko eta Gipuzkoako leku zenbaitetan deabrua izendatzeko erabiltzen den *txarran*, *txarren* formen jatorritzat du izen honen txikigarri *Cherran*.

Atzizkiaz ikus APEZENEAA.

ETXANDIA (Etx.)

AAHA: 1727ko apeoan *Echandia* ageri da. H.Ah.: *Itxaundie*.

Iruzkina: *Etxe* + *haundi* + *a*. ‘Etxe handia’. Elkarketaren ondorioz, **etxe-* + *-handi* > *etxa-* + *-handi* > *etxandi* gertatu da. Hitz hasierako fonema aldaketaz ikus ETXOTOA. Etxez ikus AZPIKOETXEA. Elkarketak eragindako galeraren inguruan, honakoa dio Mitxelenak (1961: 116):

En realidad en buena parte del vasco histórico se debería hablar más bien de elisión de la vocal final del primer miembro ante vocal, pero la raíz de la elisión generalizada se encuentra sin duda en fenómenos regulares de contracción de vocales.

⁷ HA.p.: Hiriberri Arakilgo protokoloak.

Bigarren osagaiari dagokionez, Salaberrik (2006: 878) aipatzen du ohikoa dela oikonimoetan etxearen ezaugarriei erreferentzia egitea. OEHN (s. v. *handi*) jasorik dago 1880 inguruan *haundi* nagusitu zela gipuzkeraz eta goi-nafarreraz. Etxalekuko lekukoak ere halaxe esan digu, egungo ahozko hizkeran *haundi* erabiltzen dela.

Hirugarren osagaiak bokal ixtea jasan du, bertako euskalkian ohikoa den legez. Apalauzaren (2008: 58, 59) arabera, artikulua beti asimilatzen da *i* eta *u* ondoren Imozko euskaran eta Goldaratzen, aldiz, *-ii* (*itturrii*) eta *-uu* (*maixuu*) geminatuak sortu ziren hitz amaieran. Mitxelenak Euskal Herriko askotariko eremuetako ezaugarritzat du *Rui erregela* deritzon $a > e$ asimilazioa:

En zonas muy distintas del país se observa el cierre de *a* en *e* detrás de *i* y *u* en la sílaba anterior: [...] Las condiciones en que *a* pasa a *e* son aproximadamente las mismas en el alto-navarro de Ulzama.

Hitz hasierako bokalaren goratzeaz ikus ETXOTOA. Artikuluaz ikus AZPIKOETXEA.

ETXATOA (Gol.)

AAHA: 1727ko apeoan ez da ageri. H.Ah.: *Itxatoa*.

Iruzkina: *Etxe + to + a*. Lehen bi osagaiez ikus ETXOTOA. Mitxelenak (1961: 126, 127) honakoa aipatzen du lehen osagaiaren hitz amaierako $e > a$ aldaketaz:

Este fenómeno está bien atestiguado desde los primeros documentos medievales, aunque falta al parecer en la onomástica aquitana. [...] En los compuestos de *etxe*, *etse* 'casa' (cf. mer. vizc. ant. *etsajaun* 'dueño', lit. 'dueño de casa', Gar. Cc 79 *esa galçaygarri*, G. 139 *echagalçaigarri* 'destructor de la casa', etc.)

Artikuluaz ikus AZPIKOTXEA.

ETXEBERRIA (Era., Etx., Gol., Lat., Mus. Osk., Urr., Zar.)

AAHA: 1727ko apeoan *Echeberria* ageri da Etxaleku eta Muskitzen izan ezik; Latasan *Etcheberri garaikoa* eta *Etxeberri azpicoa* daude. H.Ah.: *Itxeberrie*.

Iruzkina: *Etxe + berri + a*. 'Etxe berria'. Euskara erabiltzen ez den Urritza eta Latasan, jatorrizko forma darabilte gaztelaniaz (*Etxeberria*). Lehen osagaiaren aldaketa fonetikoaz ikus ETXOTOA.

Herri guztietan dagoen oikonimoa da. Are gehiago, aldaketarik jasan gabe iraun duen gutxienetarikoa da. Deigarria da herri guztietan *Etxeberria* oikonimoa dutenak baino berriagoak diren etxeak egotea eta hala ere hura etxe batetik bestera aldatu ez izana. Oikonimoetan aldaketak egon badaudela dio Salaberrik (2006: 890), baina badirudi oikonimo honek nolabaiteko zurruntasuna duela. *Etxeberria* "atzizki" bereizle bezala ere erabilia izan dela aipatzen du Salaberrik

(2006: 881), aurrez existitzen zen oikonimo bati erantsiz adibidez (*Agerrea / Agerretxeberria* (Igantzi)). Apezetxea eta Salaberrik (2009: 79, 80) hiru *Etxeberria* jasotzen dituzte Etxalarren (*Etxeberria*, *Etxeberriberea* eta *Etxeberrigaraia*). Horrek erakutsiko luke oikonimoak duen aldaketarako zailtasuna, *Etxeberria* oikonimoa “esleiturik” dagoen lekuetan etxe berriak egitekotan, atzizki edo aurrizki bereizleren bat behar dutelako *Etxeberria* ere izanen badira.

ETXOTOA (Osk.)

AAHA: 1727ko apeoan *Etchettoa* ageri da. H.Ah.: *Itxotoa*.

Iruzkina: *Etxe + to + a*. ‘Etxe txikia’, ‘etxetxoa’. Lehen osagaiaz ikus AZPIKOETXEA. Hala eta guztiz ere, aldaketa fonologiko baten lekuko da honako oikonimoa. Lehen fonemak *e- > i-* aldaketa jasan du. Mitxelenak (1961: 65-67) honakoa aipatzen du:

La vocal protética ante *r-* [...] es alguna vez *i-*, precisamente por asimilación de apertura a la vocal siguiente [...]. La misma acción ejerce una consonante palatal: a.-nav. *itxe* 'casa' (ya Isasti), *itxola* 'choza' < como *etse*, *etxe* y *etxola*; [...].

Apalauzaren lanean (2008: 175-204) jasotako transkripzioetan aunitzetan aurkitzen dugu *itxe* forma Imozko herri guztietan eta lekukoek ere hala erabiltzen dutela adierazi digute.

Lehen osagaiaren azken fonemak jasandako bilakabidea ez dugu ezein lanetan aipaturik aurkitu. *etxe-* + *-to* elkarketatik *etxeto* edo *etxato* espero genezake (*Etxatoa* Goldaratzén), baina kasu honetan *-e- > -o-* aldaketa gertatu da. Baliteke aldaketa horren atzean atzizkiaren bokalarekiko asimilazioa egotea, baina ez dugu horrelako kasu gehiagorik aurkitu.

Bigarren osagaiari dagokionez, Mitxelenak (AV: 152) *-txo* atzizkiarekin lotura duen atzizkitzat du. Oso antzinako atzizkia da, jada akitanieran *-to* aldaeraz (*Nescato*,) eta baita *-txo* formarekin ere (*Anderexo*, *Anderexso*) edota Iratxén 1080. urtean (*Allavato Ortiz* < al(h)aba) ageri dena.

GARAIKOETXEA (Lat., Urr. eta Zar.)

AAHA: 1727ko apeoan *Garaicoechea* ageri da Urritzan zein Zarrantzen, *Echeberri Garaicoa* Latasan eta *Garaycoechea* Oskotzen. H.Ah.: *Ga(r)ai kotxea* eta *Ka(r)akotxea*.

Iruzkina: *Garai + ko + etxe + a*. ‘Goian dagoen etxea’. Ikus ere AZPIKOETXEA. Gaur egungo biztanleen artean erabiliagoa da *Ga(r)ai kotxea*, baina Urritzako lekukoek *Karakotxea* eta *Kaakotxea* ere gogoan dituzte eta Oskotzekoek Muskitzekoa ere. Oskotzen *Garaycoechea* ageri da 1727ko apeoan baina egun ez da halakorik. Deigarria da Oskozko herrian *garai-* erabiltzetik *goiti-*

erabiltzera igaro direla *Maitonea goiti* baitago bertan eta ez ***Maitonea garaia* edo halakorik. Oikonimoetan, soilik Etxalekun kausitzen dugu *goiti-*, bertan baitugu *Goitikotxea* izeneko etxe bat. Erason eta Goldaratz *goiko* dago.

Apalauzak (2008: 148) hiru eremutan banatzen du Imozko euskalkia: Muskitz “Atetz eta Ultzamari begira” legoke, Goldaratz “Basaburu Nagusiarekin eta Larraunekin loturik” eta gainerako herriak “tarteana” leudeke. Apalauzaren (2008: 175-204) laneko transkripzioetan ikusi ahal izan dugu *goiti* erabiltzen dela ibar guztian (Eraso, Etxaleku eta Zarranzko transkripzioetan ez da esanahi horri erreferentzia egiten dion hitzik ageri) eta Goldaratz *goiko* ere ageri da. Hortaz, euskalkiaz gaindiko arrazoi batek behar du aldaketaren atzean edota pentsa dezakegu egun *goiti* hedatu egin dela aspaldi zegoen aldaketa bat estaliz. Beste zenbait kasutan bezala, hitz elkarketaren ondorioz monoptongazioa gertatu da *-oe-* > *-o-* bihurtuz.

Leku genitiboaz ikus DINDAKOA. *Etxez* eta artikuluz, ikus AZPIKOETXEA.

GOITIKOETXEA (Era., Etx.)

AAHA: 1727ko apeoan *Goiticoechea* ageri da Etxalekun eta *Goycoechea* Erason. H.Ah.: *Goitikoxea* eta *Gottikotxea*.

Iruzkina: *Goiti* + *ko* + *etxe* + *a*. ‘Goian dagoen etxea’. Erason *goikotik goitikora* pasatu da oikonimoa. *Garaikotxea* sarreran aipatu dugunez, oro har bailaran erabiltzen den forma hori dela dirudi eta, kasu honetan, oikonimoa ahozkoan erabiltzen den egungo formara “eguneratu” egin dela dirudi. Ikus GARAIKOETXEA.

IRIARTEA (Era.)

AAHA: 1727ko apeoan *Iriarte* ageri da. H.Ah.: *Iriarte* eta *Iarte*.

Iruzkina: (*H*)*iri* + *arte* + *a*. ‘Hiriaren erdigunea’. Salaberrik (2006: 882) aipatzen du “[o]ikonimo sortaile diren izenen artean, garrantzizkoena eta zabalduena segur aski” *hiri* dela. Mitxelenak (AV: 106) euskarazko (*h*)*iri-* eta gaztelaniazko *ili-* lotzen ditu, lehena forma zaharragotzat hartuz. Euskaraz *l > r* garapena izanen zuen berriki-edo. Hortik sortuak lirateke *Irun* eta *Ilunberri* herri izenak adibidez edota baita Iruña ere⁸.

Bigarren osagaiari dagokionez Salaberrik (2006: 882) aipatzen du *Iriarte(a)* ‘el barrio medio’, ‘el barrio de medios’ esan nahi duela eta herriaren erdialdean egon ohi dela, gure kasuan bezala.

⁸ Hala ere, Lakarrak (2010: 225) berrikiago **her* batekin lotu ditu, **-ili-*tik datorrelako hipotesia baztertuz.

Hortaz, *arte*-k kasu honetan ez du ‘batetik bestera dagoen eremua’ esan nahi, baizik eta ‘erdigunea’. Mitxelenak (AV: 58) ere ‘espacio intermedio’ dakar eta antzinako **aurte* batetik letorkeela proposatzen du (*Aurtenechea...*).

Artikuluaren erabileraz ikus AZPIKOETXEA.

ITURRIKOA (Etx.)

AAHA: 1727ko apeoan *Iturricoa* ageri da. H.Ah.: *Itturrikoa*.

Iruzkina: *It(t)urri + ko + a*. ‘Iturriko etxea’, ‘iturri ondoko etxea’. Salaberrik (2006: 883, 884) *iturri* oikonimo sortzaile oparoa dela dio, elizaren, bidearen edota plazaren antzeratsu eta herri ugaritako agerpenak aipatzen ditu: Ainhize-Monjolose, Arizkun, Berroeta, Etxalar, Ituren, Labaien, Lekaroz... Era berean, postposizioez lagundurik (*alde, bere, bide, buru...*) edota “huts-hutsa, atzizkiren batekin edo leku genitiboaren laguntzarekin” ager daitekeela dio.

Leku genitiboaz ikus DINDAKOA. Artikuluaz ikus AZPIKOETXEA.

JUANEA (Gol.)

AAHA: 1727ko apeoan *Juanena* ageri da.

Iruzkina: *Juan + (e)nea*. ‘Juanen etxea’. Deigarria oikonimo honek izandako garapena. Genitiboaren ohiko garapena jasan beharrean (ikus APEZENEAA), ematen du genitiboak haplologia jasan duela eta **Juanenea* > *Juanea* gertatu dela. Iñigok (1996: 527) Iturenen jaso du kasu honen oso antzeko bat: “1655eko *Joanarena*, *Juanenea* 1712an, *Juarenea* 1773an, *Joánià* egun”. Pentsa liteke hortaz, ebakera egiterakoan nolabaiteko zailtasuna sortzen zutela *Juan* eta antzeko izen bereziek. Irudi du, sudurkari apikariz amaituriko oikonimo gehienetan gertatu ohi dela aipatu haplologia Imotzen (*Beltranea, Ernatonea, Gillenea azpikoa, Julinea, Matxinea, Txurdanea*).

JUANESENEA (Lat., Mus.)

AAHA: 1727ko apeoan *Joanesena* ageri da Latasan eta *Juanessena* Muskitzen.

Iruzkina: *Juanes + (e)nea*. ‘Juanesen etxea’, ‘Joanesen etxea’. Patxi Salaberrik (2006: 268) *Joan(e)* aurkezten du bai *Juanes* eta baita *Joanesen* jatorritzat ere. Mitxelenak (AV: 111) ere elkarrekin ematen ditu *Joan* eta *Juan*.

Latasako oikonimoan ikus daitekeen *-o-* > *-u-* bokal ixteari dagokionez, Apalauzak (2008: 64) kontrako bilakabidea jaso du batez ere bailarako mendebaldeko herrietan (Gol., Lat., Urr., Era.). Dena dela, bilakabide horrek indar gehien adizkietan (*dozo* ‘duzu’, *dok* ‘duk’...) eta pertsona izenordainetan (*goo* ‘gure’, *zok* ‘zuk’...) dauka. Hitz barnean eta hitz solteetan ere ageri omen da, baina kasu gutxi batzuetan eta batez ere Goldaratzzen (*sokalde* ‘sukalde’, *emakome* ‘emakume...'). Pentsa dezakegu, hortaz, *Joanes* → *Juanes* aldaketa gaztelaniar formaren eraginez gertatu izan dela. Batetik, Latasa gaztelaniaren eragin gehien jaso duen herrietarikoa delako eta, bestetik, *joan* aditzaren formek *-oa-* mantendu dutelako bailara osoan Apalauzaren arabera (2008: 80).

Atzizkiaz ikus APEZENEAA.

JUALPITZENEAA (Etx.)

AAHA: 1727ko apeoan *Juan Lopizena* ageri da.

Iruzkina: *Juan + Lopiz + (e)nea*. ‘Juan Lopezen etxea’. Salaberrik (2006: 879) aipatzen du oikonimo ugaritan izen-deiturak daudela oinarrian (*Juanderrozena*, *Juandemururena*, *Juanlopezena*, *Martinsanzena* (Saratsa), *Juanperitzenea* (Etulain)...). Kasu honetan *-nl-* > *-l-* soilteza gertatu da eta baita *-o-* bolakaren sinkopa. Horrez gain, euskaraz ohikoa den hitz amaierako frikarien afrikatzea antzeman dezakegu *Lopiz* > *Lopitz* emanaz.

Atzizkiaz ikus APEZENEAA.

JUANTRONEAA (Osk.)

AAHA: 1727ko apeoan *Juanttorena* ageri da, 1818ko matrikulan *Juantronea*.

Iruzkina: *Juan + to + (e)nea*. ‘Juantxoren etxea’. Lehendabiziko osagaia izen berezia da.

Lehen osagaiaren atzizki txikigarria *-tto* izatetik *-tro* izatera igaro da oso argi ez ditugun arrazoiengatik. Balirudike metatesi bat gertatu dela *-o-* eta *-r-* artean, baina 1818ko datuak aukera hori biziki zailtzen du.

Atzizkiaz ikus APEZENEAA.

JUANTXENEA (Osk.)

AAHA: 1727ko apeoan *Juancherena* ageri da. 1818ko matrikulan *Juantxenea* eta *Juantxirena*.

Iruzkina: *Juan* + *txe* + (*e*)*nea*. ‘Juantxeren etxea’. Lehen osagaia izen berezia da.

Atzizkiaz, Salaberrik (2009: 206) Mitxelena eta Gorrotxategi aipatuz honakoa dakar:

Akitaniako idazkUNETAN topatzen dugun *-se(n)* (edo *-se*, *-senis*) atzizkiarekin aldera daiteke hau: *Andereseni* (dat.), *Ereseni* (dat.), *Hautense*, *Neureseni* (dat.), denak emakume izenak. Ozen ondoan *-xe* bihur bide zitekeen (*Edunxe*), baina ingurune horretatik kanpo ere azal zitekeen (*Uriaxe*), eta sudurkari ondoan, bestalde, *-se(n)* moduan ere ageri zen (*Hautense*).

Zenbait adituk akitanian *-se(n)* emakumezkoei atxikitzen zaien atzizkitzat dutela gizonezkoen *-x(s)o(n)* atzizkiarekiko txandaketan. Kintanak (2004: 587) aipatzen duenez, Lazarragaren eskuizkribuan egun ohikoa den *-txo* txikigarriaren adiera bera du: “[...] *-xe* horrek balio txikikari edo hipokoristikoa duela, gure ohiko *-txo* -ren antzera”. Beraz, proposa liteke emankorra izateari utzi aitzinetik emaztekiez gaindi hedatu zela, Kintanak dakarren Lazarragaren adibide honetatik ondoriozta dezakegun bezala: “*esecoxeoc beti barrez / oraingañõ gazte ax ta / urtexe baten goza adi* (1190 r)”. Gure kasuan ere, gizon baten izenari atxikirik aurkitzen dugula pentsa genezake, apeoan “Juan de Lizasso” ageri baita etxeko nagusi bezala. Baliteke halaber, antzinagoko **Juanatxe* batetik eratorria izatea, baina horren inguruko daturik ez dugu.

Atzizkiaz ikus APEZENEAA.

LUXENEA (Zar.)

AAHA: 1646an *Luysena* ageri da, 1727ko apeoan *Lussenea*.

Iruzkina: *Luis* + (*e*)*nea*. ‘Luisen etxea’. Apalauzak (2008: 79) aipatzen duenez, Imozko euskaraz ohikoa da goxotasuna adierazteko bustidura erabiltzea izen berezietan (*Xiunda* ‘Segunda’, *Maxux* ‘Maria Jesus’...). Gainera, *-i-* ondorengoa gune egokia da txistukariaren bustidura gertatu ahal izateko. Kasu honetan agerian geratzen da prozesu hori aspaldikoa dela, jada 1727an gauzaturik ikus baitaiteke.

Atzizkiaz ikus APEZENEAA.

MARIMIGELENEA (Etx.)

AAHA: 1727ko apeoan *Marimiguelena* ageri da. H.Ah: *Maimilenea*.

Iruzkina: *Mari + Miguel + (e)nea*. ‘Marimiguelen etxea’. Jatorrian emakumezko baten izena daraman oikonimo gutxietariko bat dugu honakoa. Mitxelenak eta Irigaraik (1955: 119) aipatzen dutenez, “Mari se emplea como una especie de prefijo para convertir un nombre en femenino”. Horrez gain, Azkuek (1918: 142, 143) *Ay Mari Miguel!* kanta dakar eta hitanoko formek emakume bati zuzentzen zaiola erakusten dute.

Atzizkiaz ikus APEZENEAA.

MATXIKENEAA (Lat.)

AAHA: 1727ko apeoan *Marichiquirena* ageri da.

Iruzkina: *Mari + txiki + (e)nea*. ‘Mari txikiaren etxea’. Salaberrik (2009: 41) dioenez, hipokoristikoak oso ohikoak izan dira euskal kulturen izen bera zuten lagunak bereizteko. Gauzak honela, honakoa jasotzen du *Mari* izenaren inguruan (2009: 42): “Lhanderen arabera (1926: 714), *Marigazte*, *Marittipi* eta *Marixume Marie*-ren txikigarriak dira, *Mariette* alegia. Hipokoristiko batean oinarritutako oikonimoa dugu honakoa. Salaberrik (2006: 879) aipatzen duenez, askotan ageri dira izengoitiak oikonimoetan (*Motzarena* (Atondo), *Niminoarena* (Arizkun, 1726)...).

Atzizkiaz ikus APEZENEAA.

PERUTXENEAA (Osk.)

AAHA: 1677. urtean *Perochena* ageri da, 1727ko apeoan *Peruchena*.

Iruzkina: *Perutx + -(r)ena*. ‘Perutxen etxea’. Lehen osagaia *Perutik* eratorria da. Mitxelenak eta Irigaraik (1955: 114) honakoa diote *Pedro* izenaz ari direla: “A su lado existe desde antiguo la forma romanceada *Peru*”. Oikonimoaren lehen formari dagokionez, honakoa aipatzen dute: “Hay toda, una serie de derivados de carácter más o menos afectivo: [...] *Peroch de H.Ah.:uraurre* Rolde 1366 [...]”. Azkenik, Patxi Salaberrik (2009: 228) honakoa jasotzen du⁹:

- **Perutx, Perux** (*Peru*): *Peruch d’Iriuarren* (Ari., 1366, LPN, 531), *Peruch ArH.Ah.:aya* (Eo., 1366, LPN, 532), «*Perus de Lequerica* e *Perus de Rexil* (= *Perusqui de Roxey*) e *Perus de Maturana* (= *Perusqui de Maturana*)» (Aramaio, 1499; Bazán & Martín, 1999: 59), *Peruch marirena* (Ziga, 1539, Eo.p., 1, 49).

⁹ Ari.: Arizkun; Eo.: Elizondo; Eo.p.: Elizondoko protokoloak; LPN: Lan honetan ez du zehazten zer esan nahi duen laburdura honek, baina Salaberriren beste lanetan J. Carrascoren (1973) “La Población de Navarra en el siglo XIV” lanari egiten dio erreferentzia.

Lehen osagaiaren atzizkiaz, -tx hipokoristikoak sortzeko atzizkia izan daitekeela aipatzen du Salaberrik (2009: 225, 226).

Atzizkiaz ikus APEZENEA.

SANTONEA (Mus.)

AAHA: 1646an *Sandua* ageri da, 1677an *Santuarena*, 1727ko apeoan *Sanduarena* ageri da eta 1818ko matrikulan *Santorena*.

Iruzkina: *Santo-* + *-(e)nea*. ‘Sainduaren etxea’. Lehen osagaiari dagokionez, agerikoa da bere bilakaeran izandako egonkortasunik eza. Mitxelenak (1974: 192) aipatzen du latinezko *sanctu* dagoela *sandu* hitzaren jatorrian. Ematen du Mitxelenak (1988 [1956]: 564) jasoriko sudurkari edo albokari ondoko ahostuntze prozesua desegin zela lehendabizi 1646 eta 1677 artean, berriro gertatu 1727a baino lehen eta atzera egin zuela berriro 1818a baino lehen, gaur arte horrela mantenduz. Dena dela, Mitxelenak berak aipatzen duenez (ibid.), zenbait idazkUNETAN agertzen diren *ankelo* (= *angelo*), *Sancuessa* (= *Sanguessa*) eta antzekoak “[...] son indicio de que los escribas tenían conciencia de que la sonora en esa posición podía representar una sorda anterior”, eta hortaz, ezin esan ahozkoan idatzizkoan bezain beste aldaketa gertatu zen. Egun erabiltzen den oikonimoak forma ahoskabea izanik, atzeranzko prozesua gertatu denik ezin uka, baina ezin jakin idatzizkoak ahozkoa eragin zuen ala alderantziz izan zen. Hitz amaierako *u > o* aldaketak gaztelaniazko formaren eragina iradoki lezake, prozesu fonetiko hutsa balitz **santu* espero baikenezake. Baliteke halaber Apalauzak (2008: 64) jasotako *u > o* bokal irekieraren adibidea izatea, antzekoak diren *beando* ‘berandu’ eta *etziama* ‘etzidamu’ jasorik baititu. Dena dela aukerarik zentzuzkoena gaztelararen eragina dela iruditzen zaigu.

Atzizkiaz ikus APEZENEA.

TXURDANEA (Era., Etx.)

AAHA: 1727ko apeoan *Jurданena* ageri da. 1828ko matrikulan *Churdarena* eta *Churdanea*.

Iruzkina: *Txurdan-* + *-(e)nea*. ‘Jurdanen etxea’. Salaberrik (2009: 48) honakoa jasotzen du: “[č] zenbait kontsonanteren kide palatalizatua da hizkera arruntean [...] **j**-rena (*Txoan*, *Txofre*, *Txurdana*; hauek, alabaina, *x*-dun aldaeratarik ere atera zitezkeen)”. Honakoa dio Ibarrek (2003: 6):

[...] *Jurдан* izen berezia 1330.ean dokumentatzen da Miranda de Argan (sic), [...] Mitxelenak ere *Jurданa* erakusten du 1350. urtean, *Jordan* ibai entzutetsutik ekarritako urez bataiatutakoei jartzen zitzaieen, dirudienez.

Atzizkiaz ikus APEZENEA.

URTITXEA (Osk.)

AAHA: 1727ko apeoan *Urruticoechea* ageri da, 1817an *Urtetxea*. ‘Urruti dagoen etxea’.

Iruzkina: *Urruti-* + *-ko-* + *-itxe-* + *-a*. Oikonimo oso itxuraldatua. Sinkopa ugari jasan ditu eta *borda* gehitu zaio egungo formara iritsi arte. Garapena honakoa izan liteke: *Urrutiko etxea* > **Urtikoetxea* > **Urtietxea* > *Urtetxea* > **Urtitxea*. Bailarako oikonimo aunitzetan ikusten ahal dugunez, *etxe* hitzak aise galtzen du lehen segmentua (*Azpikotxea*, *Garaikotxea*, *Berekotxea...*), baina kasu honetan antza, gehiago iraun zuen (edota idazkariak nahita islatu zuen; ikus SANTONEA). *Urrutiren* esanahiaz, Mitxelenak (1961: 482) honakoa aipatzen du: “En la Navarra medieval *urruti* parece haber significado 'allende': cf. *Urr.biurruti* en Puente la Reina, etc.”. Patxi Salaberrik (2006: 878) *urrutiz* ari delarik, honakoa dio: “[...] beti ubideaz, erreka edo ibaiak beste aldean dauden auzoak dira”. Etxearen kokalekuari erreparatuz, bat dator Salaberrik aipatuarekin, herriko harraskatik jaisten zen ura herriko gainontzeko etxeetatik bereizten baitzuen.

ZAPATANEA (Gol.)

AAHA: 1727ko apeoan *Zapattaguiñena* ageri da 1817an *Zapatanea*. H.Ah.: *Zapatenea*.

Iruzkina: *Zapata* + *gin* + *(e)nea*. ‘Zapatak egiten dituenaren etxea’. Deigarria da nola lehen elementuak *-gin* atzizkia galdu duen. Suposa genezake erabilera errepikatuak eragindako fenomeno izanen dela, hiztunak atzizkiaren beharrik ez ikusi edota haren esanahia berrinterpretatu (agian bertakoek lanbidea aldatu dutelako) eta atzizki osoa ezabatu dutela dirudi.

Atzizkiaz ikus APEZENEA.

4.3. Izengoitien corpusa

4.3.1 Sarrera

Aurreko atalean antroponimoetan oinarrituriko oikonimo batzuk aztertu ditugu. Oraingoan, oikonimoetan oinarrituriko izengoitiak aztertuko ditugu. Hori egiteko ohitura oso hedaturik egon behar izan du noizbait Euskal Herrian, edozeini ezagun baitzaizkio *Etxeberria*, *Garaikoetxea* eta antzeko abizenak gaur egun. Agian ez da hain ohikoa izengoiti bilakatzea, baina Imotzen behintzat badirudi hala izan ohi zela duela urte gutxi batzuk arte. Hala ere, oikonimoekin gertatzen den

bezala, haietatik eratorritako izengoitien erabilera eta ezagutzak ere behera egin du nabarmen azken urteotan. Salaberriren (2006: 884-887) lanean ageri diren oikonimoetan oinarrituriko izengoitien agerpen eremuari erreparatuz, gehienak Baztan eta Malerrekan jasoak direla ikus daiteke. Pentsa liteke, beraz, egun eremu horretan duela indargunerik nabarmenena ohitura honek. Kontuan hartu behar da halaber, kasu anitzetan, guk jasotako izengoitiak jada hilda dauden pertsonak jasotzen zituztela. Aipatu digutenaren arabera, 1920 – 1940 urteen artean jaiotako pertsonak ari gara gehienetan.

Goldaritzen izan dugun lekukoak aipatu digunez, bertan ez da etxeko nagusiari oikonimoan oinarritutako izengoitiz deitzeko ohiturarik izan. Etxe bateko jendeaz hitz egitean oikonimoa erabiltzen dutela baita gaur egun ere (*Dindekoak, Maiatzenekoak...*), baina ez omen da etxeko nagusia izendatzeko erabili. Hala eta guztiz ere, Etxalekuko lekukoak aipatu digu, bere ustez, aspaldi Goldaritzen etxeko nagusiari deitzeko erabiltzen zirela. Edonola ere den, Goldarazko testigantza zuzenik ez dugunez lortu, hemen ez jasotzea hobetsi dugu. Gainerako herrietan, erabilerak behera egin duen arren, bertako biztanleek gogoan dituzte antzina haiek beraiek erabilitakoak edota helduagoi entzundakoak.

Oikonimoen eredia jarraitu dugu izengoitiak iruzkintzeko, landuriko atalak apur bat aldatzen badira ere. Lana arinago edo irakurterrazago egite aldera, prozesu bera jasaten duten oikonimoak sarrera beraren barnean aipatu ditugu “Antzeko agerpenak” atalean. Hortaz, bakoitzaren jatorria argitzeko, nahikoa izanen da sarrera buruko izengoitiak egindako bide bera jarraitzea. Agerpenei dagokionez, azentuak markatu ditugu, “oikonimo → izengoiti” eratorpena egiterakoan aldaketa gertatzen baita. Muskitzen eta Urritzan jasotako oikonimoek gehienetan atzizkiaren diptongoa hautsi egiten dute eta azentuera paroxitonoa dute (*Azpikotxéa*). Gainerako herrietan oxitonoa aurkitu dugu goranzko diptongoarekin amaituz (*Aotzeneá*). Oro har, badirudi oikonimoetatik izengoitiak eratortzerakoan azentua aurreratzeko joera dagoela Imotzen. Azkenik, H.Ah. eta izen ofiziala bat ez datozenean, bi formak aipatu ditugu.

4.3.2. Corpusa

AIXKÓRBE (Urr.)

J.E.: *Aizkorbé*.

Iruzkina: Salaberrik (2006: 885) bere lanean aipatzen du, palataliza daitezkeen kontsonanteak bustirik ageri ohi direla askotan oikonimoetatik eratortzen diren oikonimoetan, eta honakoa horren adierazgarri da, txistukari bizkarkaria horzkariturik ageri baita.

Kasu honetan, hori izan da jasandako aldaketa bakarra, izenak ez baitu apokoperik jasan. Aldaketa ez jasatearen arrazoa, oikonimoa abizenetik eratorria izatea izan liteke. Dena dela, iruzkingarria iruditu zaigu ematen duela abizenetik oikonimora aldaketarik gabe igaro dela eta gero handik izengoitira bustidura jasan duela.

AOTZÉNE (Lat.)

J.E.: *Arotzenea*. H.Ah.: *Aotzeneá*.

Iruzkina: Urritzako lekukoak azaldu zigunez, oikonimotik antroponimora igarotzean, Imotz bailaran gertatzen den prozesurik ohikoena artikularen kenketa da. Berdin gertatzen da etxe baten borda, alorra eta antzekoak izendatzerakoan. Hala, *Aotzeneko borda* dugu, *Itxasoneko labakia* (< *Itxasonea*)...

Antzeko agerpenak: *Apezéne* (Lat.), *Argiñéne* (Etx.), *Dínde* (Osk.), *Dorróto* (Etx.). *Erdabíde* (Osk.), *Etxándi* (Etx.), *Etxebérri* (Urr.), *Itxotóne* (Osk.), *Jualpitzéne* (Etx.), *Juantxéne* (Osk.), *Lopene* (Lat.), *Luxene* (Zar.), *Maimilene* (Etx.), *Maitone* (Osk.), *Martixene* (Osk.), *Mikelene* (Etx.), *Milene* (Etx.), *Zapatiñene* (Etx.).

ARTÓNE (Mus.)

J.E.: *Artonéa*.

Iruzkina: Izengoiti honek jasandako prozesua AOTZÉNE sarreraren berdina da, baina jatorrizko oikonimoaren azentuera desberdin batetik abiatuta.

Antzeko agerpenak: *Artóne* (Mus.), *Asiñéne* (Mus.), *Alkaténe* (Mus.), *Santóne* (Mus.),

AZPIKÓTXE (Urr.)

J.E.: *Azpikoetxea*. H.Ah.: *Azpikotxéa*.

Iruzkina: Ikus AOTZENE. Kasu honetan, oikonimoaren herri ahoskera *Azpikotxea* da. Urritzako lekukoak aipatu digunez, Basaburuan *Azpikotxea* etxeko nagusiari *Azpikotx* izengoitiz deitzen zaio. Basaburua eta Ulzaman gertatzen den fenomeno dela aipatu digu. Dena dela, Oskotzen *Urtitx* (< *Urtitxea*) ere jaso dugu, beraz badirudi ez dela bailara osoan gauza bera gertatzen edota aldaketak gertatu izan direla.

Antzeko agerpenak: *Auzítxe* (Urr.).

BELTRÁN (Etx.)

J.E.: *Beltraneá.*

Iruzkina: Ikus AZPIKOTXE. Bi arrazoi ditugu honako izengoitia azaltzeko: lehena, Ultzama edota Basaburuaren tradizioak eragindako forma izatea; eta bigarrena, hiztunek atzean dagoen izen berezia antzematea, hots, etimologikoa izatea. Ikus ere ERRANDO.

ERRÁNDO (Mus.)

J.E.: *Errandonéa.*

Iruzkina: Izen berezi batean oinarrituriko oikonimoa izaki, atzizkia *-(e)nea* osorik kendu da. Antzeko kasu bat aztertzen du Salaberrik (2006: 887) eta honakoa dio: “*Errándenià* → *Erránddo* (hemen etimologikoa da, oinarrian *Errando* baitago)”. Esan beharra dago gure kasuan izengoitiak ez duela Salaberrik jasotakoak duen bustidura jasan.

Antzeko agerpenak: Juánko (Mus.).

ITTÚRRI (Etx.)

J.E.: *Itturrikoá.*

Iruzkina: Izengoiti honek jasandako prozesua ERRANDO sarreraren berdina da, baina jatorrizko oikonimoaren azentuera eta atzizki desberdinetatik abiatuta.

JAURÉGI (Era.)

J.E.: *Jauregiá.*

Iruzkina: Izengoiti honek jasandako prozesua ERRANDO sarreraren berdina da, baina jatorrizko oikonimoaren azentuera eta atzizki desberdinetatik abiatuta.

JUÁNTRO (Zar.)

J.E.: *Juantroneá.*

Iruzkina: Izengoiti honek jasandako prozesua ERRANDO sarreraren berdina da, baina jatorrizko oikonimoaren azentuera eta atzizki desberdinetatik abiatuta.

Antzeko agerpenak: *Mattíko* (Era.), *Perutx* (Osk.), *Portu* (Lat.), *Sastre* (Osk.), *Txurdan* (Etx.).

KAKÓTXE (Urr.)

J.E.: *Garaikoetxea*. H.Ah.: *Ga(r)aikotxéa* eta *Ka(r)akotxéa*.

Iruzkina: Ikus AOTZENE. Ohikoa den artikuluaeren kenketaz gain, zenbait aldaketa jasan ditu honako izengoitiak. Batetik, herskari ahostunak ahoskabeturik ageri dira. Dena dela, hori oikonimora edo oikonimotik hedatu dela dirudi, etxeari ere *Karakotxea* esaten baitiote zenbaitek. Izengoitien erabilera errepikatua dela eta, hitz arruntek baino higadura fonetiko nabarmenagoa jasan ohi dute eta hortaz espero litekeena da bokalarteko dardarkaria galtzea *Karakotxe* > **Kaakotxe* > *Kakotxe* prozesua jasanez.

MAIJUÁNTTO (Etx.)

J.E.: *Marijuanea*. H.Ah.: *Maijuaneá.*

Iruzkina: ikus ERRANDO. Aspaldian *Maijuán* esaten zitzaion bertako nagusiari, baina azkenari *Maijuántto* besteengandik desberdintzeko antza denez.

MARTIÉNE (Mus.)

J.E.: *Martinéa.*

Iruzkina: Kasu honetan, BELTRAN eta ERRANDO izengoitiek gertatzen denaren kontrakoa gertatzen da. Oikonimoak forma ofizialean falta duen genitiboaren hondarra gorde du. Dokumentazioan *Martirena* ageri da 1727ko apeoan eta Jimeno Juriok (1997: 164) (s. v. *Martireneko borda*) *Martieneko* eta *Martineko* dauzka jasorik. Baliteke analogiaz sortua izatea.

MATXÍKA (Lat.)

J.E.: *Matxiká.*

Iruzkina: Honako izengoitiak soilik azentuera aldaketa jasan du jatorrizko oikonimotik.

SÁSTRE (Osk.)

J.E.: Sastrearen etxea. H.Ah.: *Sastreán itxé.*

Iruzkina: Izengoiti honek jasandako prozesua ERRANDO sarreraren berdina da, baina jatorrizko oikonimoaren azentuera eta atzizki desberdinetatik abiatuta.

URTÍTX (Osk.)

J.E.: *Urtitxeá.*

Iruzkina: Ikus AZPIKÓTXE. Izengoiti honi dagokionez, artikulua galtzeaz gain, *-itxe-* elementuaren azken elementua galdu egin da. Atzizkiaren parte bezala interpretatu izana egon liteke horren atzean edota Basaburua eta Ultzamaren eraginez izatea.

UZTÁRRI (Urr.)

J.E.: *Uztargíleà.*

Iruzkina: Kasu honetan ikuspegi etimologikoak lanbidez gaindi ikustera eraman ditu hiztunak, lanbidea baino, lanaren emaitza darabilte eta.

5. Ondorioak

Lan honi esker Imotz bailara eta bere ohiturak sakonago ezagutzeko aukera izan dugu. Bertako oikonimiaren egoera apur bat etsigarria suerta badaiteke ere, gaur-gaurkoz erabileraren beheranzko joera iraultzeko garaiz gaudela ikusi ahal izan dugu, ezagutzak hor jarraitzen duelako eta transmisioa bultzatzea eta erabilera sustatzea besterik ez direlako behar. Oikonimoetatik eratorritako izengoitiei dagokienez, oikonimoen hedaduraren menpe daude, beraz, argi dago zeinek eduki beharko lukeen lehentasuna.

Hizkuntzaren bilakaerari dagokionez, zenbait bilakabide eta gertaera antzeman eta datatzeko aukera eskaini digu honako lanak. Esaterako, *-(r)ena > -(e)nea* aldaketa Imotzen 1646 eta 1727

urteen artean hasi zela esan dezakegu (ikus LUXENEA), nahiz eta oikonimo guztietara garai berean hedatu ez. Zenbait kasutan 1727 eta 1818 artean gauzatu zen (JUANTXENEA) eta beste askotan 1818 eta gaur egun artean (JUANTRONEA).

Hainbat oikonimotan, atzizki genitiboaren aldaketak haplologia eragin du berdinak diren silabetariko bat ezabatuz (JUANEA). Bide beretik, oikonimo eta izengoitiek ohiko hitzek baino higadura fonetiko handiagoa jasaten dutela esateko moduan gara (ARTONEA, KAKÓTX).

Hala ere, badira azalpen asegarririk eskaini ezin izan diegun zenbait kontu. Horietariko bat *Garaiko-/Goiko-/Goitiko-* banaketaren arrazoia edota *Azpi-/Behere-/Beiti-* elementuena. *Barabarnea* eta *Erdabidearen* lehen osagaiaren jatorriari buruzko informazioak ere argi-ilun ugari eskaini dizkigu.

Deigarri suertatu zaizkigu, bertako oikonimiak eta euskarak iparraldeko euskalkiekiko eta are gaskoiarekiko erakusten duten lotura. Horrek azterketa sakonago bat eskatuko luke, baina bertan aurkitutako *arotz* ‘herrero’, *behere* ‘azpi’, *oren* ‘ordu’ edota *Ernautonek*, besteak beste, harremanen bat egon dela erakusten dutelakoan gaude.

Azkenik, lan honek oikonimiaren azterketaren benetako zaitasunaz ohartzeko balio izan digu. Zenbait gauza azaltzeko ditugun zailtasunak aurrez-aurre izan ditugu eta aitzin hizkuntzaren berreraiketak eskaintzen dituen abantailez eta hartan aitzinatzeko beharraz jabetzeko aukera izan dugu. Era berean, ezinezkoa izan zaigu hala-moduz egindako lanek alor honi eragindako prestigio galeragatik ernegu apur bat ez sentitzea.

6. Bibliografia

Apalauza, A., 2008, *Imozko Euskara*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

Apezetxea, P. & Salaberri, P., 2009, *Etxalarko etxeen izenak*, Etxalarko udala.

Azkue, R. M., 1990 [1922], *Cancionero popular vasco (I)*, Euskaltzaindia, Bilbo.

Ibarra, O., 2003, “Erroibar eta Esteribarko oikonimoak (II)”, *FLV* 92, 129-164.

Iñigo, A., 1996, *Toponomástica histórica del valle de Santesteban de Lerín*, Nafarroako Gobernua, Lizarra.

—, 2000, “Nombres de oficios en la oiconimia navarra”, *Fontes Linguae Vasconum*, 83, 139-149.

- , 2008a, “Santesteban de Lerín haraneko izengoitiak (XVI eta XVII. Mendeak)”, in H. Knörr & M. A. Líbano Zumalacárregui (arg.), *III. Onomastika jardunaldien agiriak (Lizarra, 1990eko iraila)* (= *Onomasticon Vasconiae*, 7), Euskaltzaindia, Bilbo, 354-382.
- , 2008b, “Izengoitiak Nafarroako oikonimia historikoan” in *Jean Haritschelhar-i omenaldia*, Euskaltzaindia, Bilbo (= *Iker* 21), 281-307.
- & Salaberri, P., 1994, “Nafarroako antroponimia XVI. eta XVII. mendeetan”, *Euskera* 39, 1415-1422.
- Jimeno, J. M., 1997, *Nafarroako toponimia eta mapagintza XLIV*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- Kintana, X., 2004, “Joan Perez Lazarragakoren izkribuaren inguruan”, *FLV* 97, 2004, 581-596.
- Lakarra, J. A., 2010, “Haches, diptongos y otros detalles de alguna importancia: notas sobre numerales (proto)vascos y comparación vasco-ibérica (con un apéndice sobre hiri y otro sobre bat-bi)”, *Veleia* 27, 191-238.
- Mitxelena, K., 1989 [1953], *Apellidos Vascos*, Txertoa, Donostia (= AV).
- , 1990 [1961], “Fonética Histórica Vasca”, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- , 1971, “Toponimia, léxico y gramática”, *FLV* 9, 241-268.
- , 1974, “El elemento latino-románico en la lengua vasca”, *FLV* 17, 183-210.
- , 1977, *La lengua vasca*, Leopoldo Zugaza, Durango.
- , 1982, “Sobre la historia de la lengua vasca”, *ASJU* XVI, 143-156.
- , 1988 [1956], “Introducción fonética a la onomástica vasca” in J. A. Lakarra (arg.), *Sobre historia de la lengua vasca, Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo” 10* (= *Emerita* XXIV, 167-186), Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 555-580.
- , & Irigarai, A., 1955, “Nombres Vascos de Persona”, *BRSVAP* 11, 405-425.
- Salaberri, P., 2006, “Nafarroako Euskal oikonimiaz”, *ASJU* XL, 871-894
- , (2009), “Izen ttipiak”, *Onomasticon vasconiae* 26, Euskaltzaindia, Bilbo.